

"Gure erronka beti izan da ahalik eta jende gehien hurbiltzea dantza tradizionaletara, hasierako lotsa hori gainditzeko lagunduz"

Asier Arrate / bgbiz

Aiko taldea, musika eta dantza maisuz osatzen dan elkarte kulturala da eta bere helburu nagusia beti izan da musika eta dantza tradizionala zabaltzea. Urtero "dantzari ibiltaria" ekimenagaz Euskal Herriko toki ezberdinetan egoten dira dantza ikastaroak eskainiz. Ikasteko era erlaxatu, natural eta dibertigarri bat aldarrikatuz, dagoeneko 2000 dantzari baino gehiago pasatu dira Aikoren ikastaroetatik. Bostgarren urtez Gernikan izango dira eta aurtengo kurtsoaren aurkezpena Astrako eraikinean egin dabe.

> Zer da Aiko taldea?, Zein helbururekin sortu zenduen taldea?

Aiko taldea musika tradizionalan mugitzen garen dantzari eta musikariek osatzen dogu. Bakoitza leku desberdinetatik gatoz, gehienok dantza taldeetatik edo musika taldeetatik. Momentu baten erabaki gendun elkartzea, danok afizio edo egiteko gogo hori partekatzen gendualako eta hortik hasi zan taldearen ibilbidea. Herri eta probintzia desberdinetako kideak gara eta azkenean danon helburua musika tradizionala barriro herrira hurbiltzea da. Horregaz batera musika eta diskoak be argitaratzen doguz. Doinu barriak egitura tradizionaletara egokituz.

> Zenbat kidek osatzen dozue taldea?, Nolatan batu zinien proiektu hau aurrera ataratzeko?

Hamalau bat inguru edo izango gara, baina ez da kopuru zehatz bat. Kide batzuk beti egoten gara eta beste kide batzuk momentu zehatzagoetarako dagoz; grabaketak, jaialdiak... baina bakoitzak bere aletxo ipinten dau. Lehen esan dodan moduan, hasieran lagun batzuk elkartu ginen talde askoren moduan. Gero bakoitzak beste lagun batzuk ezagutzen dauz eta taldea zabaltzen joan zan. Hori bai, beti egon gara musikariak eta dantzariak. Aikoren filosofiaren zati garrantzitsu bat baita musika eta dantzaren lotura. Eta hori Aikoren ibilbidean funtsezko atal bat da. Hasieratik batu ginenak ideia hori oso argi geneukan. Askotan musika eta dantza bi mundu ezberdin bezala ikusten dira eta hori aldatu nahi genduan.

> Gernikara "Dantzari Ibiltaria" ekimenarekin etorri zarie. Zertan oinarritzen da proiektu hau?

Dantza tradizionala modu erraz, dibertigarri eta natural baten irakasteko ikastaro bat



hurbiltzea da, hasierako beldur hori kentzea. Ondo pasatzea nahi dogu, hori da bilatzen doguna. Gure helburua ez da dantza zerrenda batez joatea eta danak ikastea. Ideia gehiago da danok elkartzea eta dantzatzea giro onean. Hau ez da agian dantza talde baten moduan, non entseguak zorrotzagoak, teknikoagoak diren. Ez dogu ikuskizun bat sortu nahi edo plazan eszenatoki gainean dantzatu nahi. Gure proiektua erromerietara zuzenduta dago. Dantzaren bidez ikastaroetako ikasleek jende barria ezagutzeko aukera daukie. Azkenean ikastaro hauek herri bakoitzean koadrilatxoak sortzen dira eta gero erromeri batean, Durangon adibidez, batzen garenean sekulako esperientzia izaten da. Hortik aparte ez dauko inongo barritasunik, azken finean dantza tradizionaletan ez da ezer barririk asmatu.

> Aurtengo "Dantzari Ibiltaria" ikastaroak

Hamar herritan egongo gara; Bilbo, Donosti, Durango, Galdakao, Sopela, Zarautz, Markina-Xemein, Azkaine, Iruñea eta noski Gernika. Iruñea eta Azkaine aurtengo lehengo aldiz egongo dira. Orain arte taldekide gehienak Bizkaitarrak izatean gehiago mugitu gara inguruan baina apurka-apurka bagoaz zabaltzen.

> Eta Gernikan non izango dira ikastaroak? Aurtengo Gernikako ikastaroak San Fidel Ikastolan izango dira. Ostegunero emango dira ikastaroak eta bi maila egongo dira. Oinarritzkoa dantza tradizionaletan sartzen eta ohitzen hasteko. Ondoren dantzagunea deitzen dena egongo da, maila gehiago deukienentzat zuzenduta eta beste jende batez dantza egitea da helburua. Hortaz aparte ikastaroaren aurkezpena Astran egin dogu, ikasle berriak ezagutu eta kurtsoaren nondik norakoak azaltzeko. Gernikan jada bostgarren urtea da

66

"Askotan musika eta dantza bi mundu ezberdin bezala ikusten dira eta hori aldatu nahi genduan."

"Gure helburua jendea dantza hauetara hurbiltzea da, hasierako beldur hori kentzea."

"Zabalduta danontzat dago baina gehien bat pertsona helduak etortzen dira."

66

hasi ginen. Bertan urte bi egon ginen eta ostean San Fidel etorri zan. Hor urte bi edo hiru egin doguz eta aurtan barriro errepikatzen dogu.

> Adin guztietako jendea joaten da ikastaroetara?. Taldeka edo banaka joaten dira?

Zabalduta danontzat dago baina gehien bat pertsona helduak etortzen dira. Ez da umeentzako ikastaro bat. Baina batzuetan adina aldatzen doa urtearen arabera. Batez be taldeka badatoz urte batzuetan adin kopuru bat handitzen da. Egia da jende heldua etortzen dala, agian denbora libre gehiago daukielako honelako gauzatarako. Baina iaz Sopelan adibidez 26 urteko neska koadrila bat etorri zaigun. Horregatik herriaren eta urtearen arabera dala uste dot. Hortaz aparte jende gehiena banaka edo binaka etortzen da. Baina hori be tokiaren arabera da, badago jende asko taldeka etortzen dana. Batzuk lanetik ezagutzen dira, beste batzuk koadrilakoak dira edo aspaldiko lagun bategaz batera egoteko aukera delako etortzen dira.

> Azaldu dozuen moduan, dantza modu erlaxatu, natural eta dibertigarrian egitea


da zuen helburua. Nolakoa da zuen metodologia ikastaroetan?

Uste dogu garrantzitsuena errazetik hastea dala, dantzan egiteko modu sinple hori bilatzea. Dantzan erlaxatuta egitea. Gizakiok berez mugitzen garenean plazerra sentitzen dogu, ez hamen bakarrik mundu osoan be eta gainera txiki-txikitatiki sentitzen dogu. Horregatik gure helburua metodologia horren bidez plazer hori topatzea da. Beti saiatzen gara giro atsegin hori topatzen. Horri ematen deutsagu garrantzia, mugimenduari. Ez gabilta saio baterako zorroztasunez ensaiatzen, akats bat egiten denean gure buruaz barre egiten ikasten dogu, norberaren gorputzagaz gustora sentitzea nahi dogu.

> Astebarruko ikastaroez gain, beste ekintzarik antolatzen dozue? Aiko taldeak urtean zehar herri ezberdinetan erromeriak egiten dauz. Deitzen badeuzkue gu han egoten gara

dantzan. Durangon bazkariak eukiten doguz, gabonetan eta ikasturte amaieran. Aurtan badago beste nobedade bat, hiru hilerik behin, asteburu baten ikastaro tinko bat antolatzen dogu. Zapatu arratsaldean hasten da ikastaroa, gauean dantzaldi bat egiten da, gero gura dabenak bertan lo egiten dau edo etxera doa eta gero domeka goizean ikastaroarekin jarraitu. Ikastaro tinko hauetako lehenegoa Zarautzen izango da azaroko bigarren asteburuan.

> Zein dantza ikasteko aukera izango dabe zuen ikastaroetara hurbiltzen direnak? Danetarik, bai solteak zein agarrautakuak be bai. Jota eta porrue, boleruak, balsak, pasodobleak, jauziak... Gehienbat Bizkaiko plazetan gure aitite-amumak egiten ebezen dantzak eta baita beste probintzia batzuetakoak. Guk horri euskal globalizazioa deitzen deutsagu. Gure aitite-amumek ez zekien zer zan jauzi bat baina orain osteria Nafarroako edo Gipuzkoako dantza bat bardin-bardin ikasten da. Gero



NEKAZALTURISMOA - JATETXEA
Guzurtegi
945 39 94 38

La Plazuela auzoa, 6
www.guzurtegi.com

01479 Maroño - Aiara (ARABA)
e-maila: guzurtegi@guzurtegi.com

"Akats bat egiten
danean gure buruaz
barre egiten ikasten
dogu, norberaren
gorputzagaz gustora
sentitzea nahi dogu."

"Babes ekonomikoak
behera egingo eban
baina dantzariak gora
egin dabe eta hori da
garrantzitsua."

"Askotan esan dogu
dantza tradizionalak
modan ez dagozalez,
modaz be ez direla
pasetan"



askotan pasatu jazku dantza batzuekaz
jendea harritu egiten dala. Adibidez
"chotis" bat dantzatzeko esaten dogunean.
Jendeak dantza batzuk bertokoak ez
direnen ideia deukie. Baina izatez gure
aitite-amumek dantzatzen ebezan.
Horregatik guk gaztaiaren adibidea jartzen
dogu. Gaztaia leku askotan egiten da baina
gero bakoitzak bere estiloa emoten deuto.
Honen adibide garbiena jota da. Hasieran
inork ez zeuen dantzatzen, dantzarik
espainolena kontsideratzen zalako eta gaur
egun ez dago erromeriarik jotarik gabe.

> 6 urte daroazuez "Dantzari Ibiltaria"
proiektuagaz. Nolakoa izan da urte
hauetako ibilbidea?
Hasi ginenean benetan ez genduan jakin
zer gertatuko zan. Hasierako
planetamendua klaseak ematea eta musika
argitaratzea baino ez zan. Eta ibilbide
horretan hasi ginen "Dantzaldi Ibiltaria"
proiektuagaz, konturatu ginelako jendea
plazetara animateko forma bakarra
klaseakaz zala. Hasieran beti nahi dozu
ahalik eta gehienera heltzea baina gaur

egun pentsatzea Iparraldera, Nafarroara
eta Bizakaiko hainbat herritara heldu
garela, irakasleak gehiago garela eta
pixkanaka modu naturalean ikasteko
filosofia hau zabaltzen dabilela guretzat
oso pozgarria da. Baita ere argitalpenen
aldetik oso pozik gagoz. Hainbat disko
argitaratzea lortu dogu eta.

> Babesik jaso al dozue proiektua eta
taldea aurrera ateratzeko?
Egon izan da babes momentu
desberdinetan. Orain egia esan gatxago
dago. Argi dago babesagaz gauzak errazago
egiten dirala baina guk uste dogu aurrera
egin behar dala. Batez be dantzariek
emoten deutsuen berotasun eta babes
horregatik baino ez bada. Gainera ikusten
dozuzenean ikasleak plazara dantzan
ateratzen direla, lanaren fruituak hor
daudela, horrek danak indarra emoten
deutsu aurrera segitzeko. Babes
ekonomikoak behera egingo eban baina
dantzariak gora egin dabe eta hori da
garrantzitsua.

> Folklore baserritarraren ideia hedatu
horren gainetik dantza tradizionalaren
berezko ingurunea hiritarra izan dela eta
jarraitzen dauala adierazi dozue. Zergatik
uste dozue hori?

Dantza egin izan da bai ingurune
urbanoetan zein landa guneeetan, baina
beti egon da halako joera bat garaiko
Euskal Herria idealizatzeko. Gure aitite-
amuma asko baserrikoak izan dira eta
euren auzoetan eta herrietan dantza egin
dabe, baina askotan hori gogoratzean
ahaztu egiten dogu gure ingurune
urbanoetan be oso erromeri garrantzitsuak
egon dirala. Horretan adibidez Bizkai
inguruan Bilboko La Casillako erromeria
oso inportantea izan da. Bilbo hiriburua
da eta erromeri horretara inguruetako
herrietako jendea joaten zan eta han
elkatzen ziran dantza egiteko. Orduen
ingurune biak izan doguzala esan ahal da.
Pasetan dana da hiriburuak garrantzitsuak
izan baziren be batzuetan gure folklorean
hori ahaztu egin da. Garai haretaz
pentsatzen dogunean joera gehiago
daukagu baserriko gauzez gogoratzeko.

> Folklore eta dantza tradizionalak gure
ospakizunetan berriro be indarra hartzen
dauala uste dozue?
Askotan esan dogu dantza tradizionalak
modan ez dagozalez, modaz be ez direla
pasetan. Atenporalak direla. Dantza
tradizionalena garaikoa dala uste dogu.
Garai bat egon zan erromeri pilo bat egiten
zirena. Horren ostean geldialdi bat egon

TIPS@

ZERBITZUAK
> Nazionala > Probintziala > Eskualdeetakoak >
Irleetaoak > Portugal > Egunerokoak > Egunean bertan
> Premiazko zerbitzuak > 10 Ordu > Zerbitzu masibok
"kanpainak"

TIPS@
GARRAJO INTEGRALA PAKETERIAN
GIVKIDARUA, 33B
48300 GERNIKA (BIZKAIA)
TEL.: 94 625 01 90 / 672 458 745
E-mail: guernica@tjp-sa.com

zimela
jatetxea

Carlos Gangotxi, 57
Tel.: 94 625 10 12 - Faxa: 94 625 56 77
zimela@zimela.com
www.zimela.com / www.zimela.es

AMURRIO
BITXITEGIA

San Roke, 3
94 625 09 28
GERNIKA-LUMO

OKINDEGIA
Labakoa

Don Tello k.,8 • Tel.: 94 625 09 44
Don Tello k.,11 • Tel.: 94 625 85 11
GERNIKA



zan eta orain emoten dau berriro hasi dirala erromeriak indartsu. Gazteak be gehiago mobitzen dira erromerietara eta emoten dau barriro be gora egingo dabela.

> Diskoak atera dozuez, jaialdiak antolatu, ikastaroak eman. Baina zein da taldearentzat erronka nagusia? Dantza tradizonala ahalik eta gehien herrirako egitea. Ahalik eta jende gehien hurbiltzea estilo honetara eta dantzan egitea. Hasierako lotsa hori apurtzea posible dala erakustea. Azken finean ideia horren bideratzaileak bihurtzea. Danok bait dakigu dantzan egiten, falta jakune da azken sakakada hori. Gure erronka beti izan da hori, ze ikusi genduan hasiera batean dantzak herriko zerbait zirela eta denborarekin hori aldatzen joan da. Eta aldaketa prozesu horretan dantzak jaietako

edo egun zehatzetarako zerbaitetan bihurtu dira. Eszenatokira zuzendutako ikuskizun bat. Horregatik antzinan dantza egiteko zegoen ideia berreskuratu nahi izan dogu baina gaur eguneko zenbait gauza gehituz.

> Etorkizunera begira nola ikusten dozue proiektua?

Etorkizuna asko zehaztu beharrik ez dauala uste dogu. Jendea ez da geratuko dantzan egiteaz eta beraz Aikok be hor segiduko dau. Apur bat lehen komentatu dogun atemporalidade hori dagoela uste dogu. Gu ez gara irratietako entzunen zerrendetan gauden taldeak, ez Aiko ez dantza tradizionaleko beste edozein talde. Gure zabalkundea beste modu batekoa da. Ez dagoz bapateko igoerak, baina etengabe maila apalago batean hazten gabiz. Horregatik zentzu horretan baikor gagoz.

"DANTZAZALEAK": argazki-erakusketa ibiltaria

Aurten, ikasturtearen hasiera ospatzeko, AIKO Taldeak omenaldi xumea eskaini nahi deusie dantzari eta dantzazaleei "Dantzari Ibiltariaren" ibilbidea laburbildu eta tailerren funtsa jasotzen dauen argazki-erakusketa bategaz. Irudiak Iñaki Andrés argazkilariak landutakoak dira, tailerren benetako protagonistetan oinarrituta: dantzazaleak, dantzan ikasi eta estiloa hobetzeko zein euskal folklorea suspertzeko ahaleginak egiten dabezanari. Horregatik jarri jako 'Dantzazaleak' izenburua 130 argazki baino gehiago bildu dauezan erakusketa honi. Irudiek AIKOk ekimen hau abiarazteko erabili eban jatorrizko asmoa islatzen dabe: herri kulturarako hurbilketa naturala lortzea, protagonismoa dantzaen mesedetan berreskuratu dan publiko berri horri emonda Erakusketa Gernikeko Kultur-Etxean egongo da ikusgai abenduaren 17tik urtarilaren 10era.

ARMENOL IZAGARRI, S.L.
ERAIKUNTZARAKO MATERIALEAK

MANPOSTERIARAKO LAJAK
BAÑUKO MUEBLEAK ETA AZULEJOAK
HARRIAK

Ibarra Industrialdea, 24 San Juan, 17
Tfnua: 94 625 22 07 Tfnua: 94 625 05 27
GERNIKA Faxa: 94 625 27 11

Logos: ESKATZAR, VELUX, URALITA, AALITA, Onduline, GUARALD FRERES, etc.

BITXITEGIA
EUSEBIO
KONTZESIONARIO OFIZIALA
OMEGA

94 625 27 32 GERNIKA

Zallo Barri

Juan Calzada, 79 - 48300 GERNIKA-LUMO - Bizkaia
Tels.: 94 625 18 00 - 94 625 52 39 - Fax: 94 625 18 00
www.zallobarri.com

SAN JUAN
Loteria administrazioa 2.zbkia

San Juan, 23 • Tel 94 625 48 99 • 48300 GERNIKA

Trusquieta
bitxiak - zilarra-erlojuak

Santa Maria, z/g / 76 p.k. / 48300 GERNIKA
Tel.: 94 625 11 75

Ortopedia GUERNICA

San Juan, 2 • Tel. 94 625 54 88
E-mail: guernica@ortopedia-guernica.com
Web: www.ortopedia-guernica.com
GERNIKA